

Zoriontasunak pandemia aldian

Nafarroa eta Euskal Herriko gotzainen baterako pastoral idazkia
COVID-19ak eragindako osasun, ekonomia eta gizarte krisia dela-eta

Aurkibidea

Sarrera (1. zen.)

I. Gure bizitzan sufrimendua eragiten duen gaitzaren misterioa (4. zen.)

II. Hitzaren Gizakundea: sakrifizioa, gupida, kontsolamendua eta errukia

III. Kreazio berria Kristo bizi eta itxaropenaren iturriarengan (17. zen.)

IV. Zoriontasunak osasun, ekonomia eta gizarte krisialdi honetarako (23. zen.)

IV 1. "Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege" (Mt 5, 3). (24. zen.)

IV 2. "Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitz emandako lurraz" (Mt 5, 5). (26. zen.)

IV 3. "Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko" (Mt 5, 4). (32. zen.)

IV 4. "Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko" (Mt 5, 6). (34. zen.)

IV 5. "Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango" (Mt 5, 7). (37. zen.)

IV 6. "Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa" (Mt 5, 8). (39. zen.)

IV 7. "Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko" (Mt 5, 9). (41. zen.)

IV 8. "Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege" (Mt 5, 10). (44. zen.)

IV 9. "Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztenean erasoka eta gezurrez gaitz esaka erabiliko zaituztenean. Poz zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten" (Mt 5, 11-12). (45. zen.)

V. Gantzutu eta mandatari, lutuzko jantzia jaiko lurrun bihurtzeko (46. zen.)

Amaiera (48. zen.)

Sarrera

1. Pazko aldi hau ezezaguna egiten zaigun egoeran bizi dugu. Jasaten ari garen pandemiak eta bere gizarte eta ekonomia ondorioak atsekabe-iturri ditugu eta jarrera

hartzera eta erantzunak ematera garamatzate. Testuinguru honek zein bidetatik joan behar dugun argitzen lagunduko digun *Kristoren pazko misterioaren argitan hausnarketa lasaia* eskatzen du. Ezinbestekoa dugu gaur egungo erronkei aurre egiten lagunduko digun itxaropenaren argia. Aldi berean, nahitaezkoa dugu inguruabar hauetan aurkezten zaigun hainbat konturen inguruan hausnarketa egitea, hala nola: nola antzeman Jainkoaren maitasuna egoera zail honetan; nola ulertu maitasun hau gaitzaren eta hainbestek jasaten diharduen sufrimenduaren aurrean; ebanjelioko zein giltzaz baliatu erronka hauei aurre egiteko; nola bizi gaur egun zorientasunak inguruabar zehatz hauetan.

2. Jainkoak maitasunez sortu gaitu. Horra hor Hasiera liburuko lehen txataletan agertzen den eta Idazteun osoan zehar garatuko den mezua. Eta errealitate honek argi egiten digu eta zentzuz betetzen du gure bizitza. Hain zuzen ere, *gizakia Jainkoaren antz eta irudiko sortu izana maitasunezko misterioa da*: “Jainkoak, beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin zuen; ar eta eme egin zituen. Eta bedeinkatu egin zituen, esanez: Sor itzazue umeak eta ugaldue, bete lurra eta izan haren nagusi; menpera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrian narrastaka dabiltzan piztia guztiak” (Has 1, 27-28). Kreazioaren bigarren kontakizunak, Jainkoak gizakiari putz bizi-arnasa putz egiten diola aditzera ematen du eta, horren bidez, kreazioaren testuinguruan aparteko izaera ematen diola eta berarekin hartu-eman berezia ezartzen duela: “Orduan, Jainko jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudur-zuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen. Ondoren, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Edenetik, ekialdean, eta hantxe ezarri moldaturiko gizona” (Has 2, 7-8).

3. Maitasunezko misterio honekin batera, gaitz eta bekatuaren misterioa ere azaltzen zaigu, Adam eta Ebaren erorikoan (ik. Has 3). Misterio honek gure bizitza osoan iraungo du eta gordintasun betean aditzera eman zaigu pandemia aldi honetan. Hala ere, Jainkoak ez ditu bertan behera uzten maitasunez sortu dituenak: “Izan ere, Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duenik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan. Zeren Jainkoak ez baitzuen Semea mundura bidali mundua kondenatzeko, haren bitartez salbatzeko baizik” (Jn 3, 16-17). *Jainkoak ez du inoiz bertan behera uzten gizakia*, eta ez zuen bertan behera utzi Herri aukeratua, alderantziz baizik, iraun egin zuen harekin egindako itunean. Hain zuzen ere, errukiaren bitartez maitasunezko itun honetan etengabe berrezartzea izan zen Israelen aldeko bere egintza. Jainkoak gaur egun ere ez gaitu bertan behera uzten.

I. Gure bizitzan sufrimendua eragiten duen gaitzaren misterioa

4. Aldi honetan, *gaitza eta sufrimendua era mingarrian azaldu dira gure bizitzetan*. Milaka kontu daitezke hildakoak. Kasu askotan, heriotzaren orduan senide maiteenen laguntasunaz gozatzeko aukerarik gabe. Kasu askotan egoitzetan bizi zirenen eta, prebentzioz, senideen bisitak murriztuta zituzten pertsona nagusien sufrimendua ikusi dugu. Hartu diren osasun-neurriek goitik behera aldatu dituzte gure bizitzak. Konfinamenduaren esperientzia ezezaguna bizi izan dugu; geletan ez da eskolarik ematen; produkzio-prozesua eten egin da. Ahultasun pertsonal eta soziala antzeman dugu. Osasun arloko profesional eta pertsona zaintzaile ugari hil egin da gaixoak

artatzean. Ekoizpen-jarduerak egundoko beherakada jasan du eta, ondorioz, enpresak itxi eta milaka lanpostu suntsitu da. Atsekabez beterik ikus dezakegu hainbesteko ilusioz sortutako milaka denda ixten ari dela eta beren ahaleginarekin ondasun eta zerbitzuen sorrerari eusten dion hainbeste langilek lana galtzen duela. Makina bat familia ez dela hilaren azkenera iristen ere ikusten dugu, burutik pasatu ere egin ez zaizkien laguntzak eskatu beharrean daude eta etorkizunari beldur eta etsipenez begiratzen diote. Krisi ekonomiko honi aurre egiteko ezinbesteko ahalegin ekonomikoak familien, enpresen eta erakundeen zorra areagotzea dakar. Eta hau gure inguruan ez ezik, gutxi-asko, auzoko herrialdeetan eta, orokorrean, nazio guztietan gertatzen da. Aurrez aurre dugun egoera, gogorra da, eta nahitaezkoa izango da bat eginda, errealismo, ahalegin eta erantzukizunez aurre egitea.

5. Horregatik, lehen atal honetan, *bihotzean sor daitekeen zalantzaren inguruan hausnartu nahiko genuke*: Jainkoa ona bada, zergatik onartzen ditu zorigaitz hauek. Benetan maite bagaitu, beste era batera sortuko zukeen mundua, hainbeste sufriarazten digun gaitzaren presentziarik gabe. Sakonean, besteak beste, Hume eta Dostoievskik era dramatikoan egin zuen galdera dago: Jainko on eta ahalguztidunak ez ote zukeen gaitzik gabeko mundua sortu behar? Ezin izan badu, ahalmena falta du. Nahi izan ez badu, ontasuna falta zaio.

6. *Gaitzaren jatorriaren kontuak beti sortu izan dizkio galderak giza pentsamenduari*. Antzinako hainbat kulturatan, gaitza mundu-ikuskeran dualistaren emaitzatzat jotzen zuten, ikuskera horren arabera, onak eta gaitzak jainkotasun on eta txarren eragina adierazten duela aldarrikatuz. Sokratesek (K.a.ko V. g.) gaitz moralaren gertakaria aztertu zuen eta ezjakintasunari egotzi zion: gizakiak, etikaren arabera bizitzea bizimodurik onena, zoriontsuena, dela konturatuko balitz, ez luke gaitza hautatuko. Pentsamendu gnostikoarentzat edo espiritualismo platoniko edo neoplatonikoentzat, gaitza, espirituaren munduaren ontasunak parez pare duen materiaren mundutik dator eta hortik askatu beharra dago. Mundu klasikoan, Plotinok (K.o.ko III. g.) kontu horretan sakondu eta geroko pentsamenduan kontuan hartuko den hausnarketa egiten du: gaitza on baten gabezia edo falta da. Pentsamendu gnostikoarentzat edo espiritualismo platoniko edo neoplatonikoentzat, gaitza, espirituaren munduaren ontasunak parez pare duen materiaren mundutik dator eta hortik askatu beharra dago. Sokratesek ere aztertu zuen gaitzaren gertakaria, Platonen Elkarrizketak delakoetatik ondorioztatzen denez, eta gaitza ezjakintasunari leporatzen zion: gizakiak, etikaren arabera bizitzea bizimodurik onena, zoriontsuena, dela konturatuko balitz, ez luke gaitza hautatuko. Oraindik orain, arrazionalismoak errealitate burutu gabe eta ez-perfektuari egotzen dio. Eta, horrela, John Milton XVII. gizaldiko olerkari eta saio-idazle ingelesak "Paradisua" bere liburuan, gaitz moralaren sustraia geure erabakimena dela dio; aske garelako existitzen dela gaitza dio berak, izan ere Jainkoak ez baitzuen gu kateatuak izaterik nahi. On edo gaitza askatasunez aukeratzearen prezioa da. Eta dialektikaren filosofoek, nagusiki Hegelek (XVIII-XIX g.), muturren arteko borroka bezala, sintesi-antitesi mugimendu etengabe bezala, ulertzen dute errealitatearen bilakaera.

7. *Kristau pentsamenduak ere aztertu izan du gaitz eta sufrimenduaren kontua*. Ikusi berri dugun bezala, Idazteunean ia hasieratik agertzen den errealitatea da. Jakinduria-literaturak gai honetan sakontzen du. Jakinduria liburuak funtsezko baieztapena egiten

du: “Jakin ez duela Jainkoak heriotza egin, bizidunak galtzea ez duela atsegin. Izan eta irauteko egin ditu hark gauza guztiak” (Jkd 1, 13-14). Hau da, Jainkoa ez da ez gaitzaren jatorria ezta sufrimenduaren eragilea ere. Baieztapen hau abiapuntutzat hartuta, *gaitzaren eta errugabearen sufrimenduaren inguruko hausnarketa sakona egiten da Joben liburuan*. Jobek era guztietako zorigaitzak jasaten ditu: gaixotasunak, senide maiteen heriotza, etxalde eta ondasunen galera. Horregatik, jakinduriari buruzko idazki honetan, Job gizon zintzo eta zuzena izanik, gaitz horien arrazoiaren inguruko galdera egiten da. Yahvek irmotasunez baztertzen du Joben hiru adiskideen tesia: beraien ustez, Joben gaitzak ezkutuko bekaturen baten ondorio izan behar zuen. Liburu honek Gaiztoak munduan eta gizakiarengan zuen eragina ere kontatzen du¹. Hain zuzen ere, gizakia, bere askatasunaz baliatuz, gaitza egitea aukeratzeko gauza da, baita batzuetan onaren itxurarekin ere. Munduan hedaturik dagoen sufrimenduaren zati bat guk geuk eragiten dugula konturatzen gara. Jainkoak, era misterioetsuan, errugabearen sufrimendua onartzen badu ere, muga jartzen diola azpimarratzen du Joben liburuak. Bere errugabetasunari eusten dion Jobek, hala eta guztiz ere eta ororen gainetik, uste osoa du Jainkoarengan. Azkenean, bere errugabetasunari nekaezin eutsi eta Jaunaren aurka borrokatu ondoren, ezusteko oparia jasotzen du: “Entzunez bakarrik ezagutzen zintudan; orain, neure begiz ikusi zaitut!” (Job 42, 5). Harrigarria badirudi ere, sufrimenduaren iluntasunari esker, Jobek sakontasunez esperimendu ahal izan du Jainkoaren maitasunaren egia. Aldi honetan jasaten ari garen sufrimendua, ez ote daiteke beti, baita zorigaitz hauetan ere, zaintzen gaituen eta horietatik aterako gaituen Jainkoaren presentziaz jabetzeko aukera?

8. Literatura profetikoak gaitzaren, zehazki errugabearen sufrimenduaren, auzian sakontzen du, *Isaias profetaren Yahveren Zerbitzariaren, Jesukristoren benetako iragarpenaren, lau kantiketan* kontaturik. Zerbitzariari buruzko hirugarren kantikan geldituko gara; honela dio: “Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriak adore-hitzez bizkor ditzadan... Jainko Jaunak belarria zabaldu dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo... Jauna dut laguntzaile: horregatik ez didate irainek etsiarazten; horregatik gogortu dut aurpegia harkaitza bezala, bai baitakit ez didala usteak huts egingo” (Is 50, 4-7). Kantika honek egunotan hain beharrezkoa dugun hitz kontsolagarria eskaintzera bidalitako zerbitzari – ikasleaz hitz egiten digu. Gizatiar guztia zentzuz betetzen duen Hitz sortzailea da. Hitz hau haragi egin da Jesus Jainkoaren Semearengan, haragi egindako Hitzean. Eta Hitz hau sufrimendu ororen barrura sartzen da, Jaunak, bere Nekaldian, era miresgarrian bereganatzen duelarik. Jesusek bere egiten ditu gure gaitz eta oinazeak, heriotza barne. Baita pandemia aldi honetakoak ere. Eta adore eta itxaropenezko hitza eskaintzen digu.

9. Jakindurian eta literatura profetikoan egiten diren baieztapen hauek *Ebanjelioan aurkitzen dute zentzu bete*a. Hainbat pasartetan aipatzen da gaitzetik askatzen gaituen

¹ Frantzisko Aita Santuak hainbat aldiz aipatu du gai hau. Hauxe zioen, esate baterako, 2010.eko martxoaren 1eko angelusean: “Gaur ere Satanas ustekabeen sartzen da gizon eta emakumeen bizitzan bere proposamenekin tentatzeko; bereak nahastatzen ditu kontzientzia otzantzen saiatzen diren ahots ugariekin. Hainbat lekutatik iristen dira haustearen xarma esperimendatzea jendea “tentazioan jaustera” bultzatzen duten mezuak. Tentazioa Jainkoaren bideak ez ezik bestelakoak hartzeko saiakera dela erakusten digu Jesusen esperientziak. Baina dena ametsezkoa da: laster konturatzen garelako, Jainkoarengandik zenbat eta gehiago alden, orduan eta indargabe eta babesgabe sentitzen garela bizitzako arazo handien aurrean”.

Jainkoaren maitasun mugagabea. Hona hemen hainbat pasarte esanguratsu: “Ez naiz mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik” (Jn 12, 47). “Jainkoak ez zuen Semea mundura bidali mundua kondenatzeko, haren bitartez salbatzeko baizik” (Jn 3, 17). Hau da, Kristorengan agertzera emandako Jainkoaren maitasuna hain zuzen gizakia gaitzetik –baita berak sortu duenetik ere- askatzera dator. Bere etorrera ez da hondamen-iturri, salbazio-iturri baizik.

10. Bereziki interesgarria da Jesusek jaiotzatik itsua zen gizonarekin bat egitean esan zituen hitzei buruz hausnartzea: “Ikasleek galdegin zioten: «Maisu, zeinek egin zuen bekatu, hau itsu jaiotzeko, beronek ala beronen gurasoek?». Jesusek erantzun zien: «Ez beronek ez beronen gurasoek, ez zuten bekatu egin, baizik eta Jainkoaren egintzak honengan ager daitezzen jaio zen itsu»” (Jn 9, 1-3). Hain zuzen ere, gaitza, Jainkoarengandik ez etortzeaz gainera, Haren ontasun eta errukia erakusteko aukera izango da. *Jesusek ez du oinaze eta sufrimenduari buruz teorizatzen, bere gain hartzen ditu gizadia behin betiko irekiz itxaropenera eta benetako bizira.* Jainkoak, beraz, sufritzen dagoenaren alde egiten du beti. “Kristorekin batera gurutziltzaturik nago, eta honezkero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da niregan. Eta oraingo neure giza bizitza, maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini zuen Jainkoaren Semearenganako sinesmenean oinarriturik bizi dut” (Gal 2, 19-20). Jesusek bere gain hartzen ditu, beren osotasuna jadetsiko badute doan emango dien Hura onartu beharko dute bere izakien sufrimenduak, oinazeak eta heriotza bera.

11. Behin eta berriz adierazi nahi dugu gure uste osoa: maitasunez sortuak izan garela, maitatzeko eta maitatuak izateko; Jainkoa ez dela heriotzaren egilea eta ez garela heriotzarako sortuak izan eta ez gaudela sufrimendurako eginak. Jainkoak bizirako sortu gintuen, maitasunerako, zorientasunerako, horregatik, lanak izaten ditugu, bereziki egunotan agertzen den geure nekaldia bere egiten duen Jesusen nekaldian, egundoko sufrimenduan, barneratzeko. Berezkoa du gizakiak oinaze eta heriotzatik ihes egitea. Jesusek ere sumatu zuen izu hori: “Aita, urrun ezazu niregandik edari samin hau,... eta izerdia zerion odola bezain lodi” (ik. Lk 22, 44). *Jesusek ausart ematen du bere burua Nekaldirako, gizadiaren gaitzak bere gain hartu eta bizi bihurtzeko borondatez: “Jaiki, goazen” (Mk 14, 42).*²

12. *Apokalipsiaren* liburuak gaitza behin betiko garaitzen dituen *Jainkoaren maitasunaren agerkunde hau laburbiltzen du.* Aitagurearen amaieran egiten dugun eskari bera da, hau da: atera gaitzazu gaitzetik.³ Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbideak, salbazioaren historia Jainkoak misterio honen aurrean ematen duen maitasunezko

² San Pedro apostoluak honela laburtzen du: “Kristok, zuengatik sufritud, ikasbide eman zizuen, zuek ere haren urratsei jarraituz joka dezazuen. Hark ez zuen bekatu egin, ez zen haren ahoan maltzurkeriarik; iraintzen zutenean, ez zuen irainez erantzuten; sufrirazten ziotenean, ez zuen mehatxurik egiten; aitzitik, zuzen epaitzen duenaren eskuetan jartzen zuen bere burua. Gure bekatuak bere gain hartu eta gurutzeraino eraman zituen, gu ere, bekatuzko bizierari uko eginez, zuzentasunaren arabera bizi gaitezen. Haren zauriek sendatu zaituztete. Galdurik zenbiltzaten, ardiak bezala; baina orain zeuen artzain eta zaintzaileagana itzuli zarete”.

³ “Gaitzoarengandik askatzea eskatzen dugunean, oraingo, lehengo eta geroko gaitz guztietatik –bera egile eta zirikatzaile den gaitzetatik- askatzeko ere errezatzen dugu. Azken eskari honetan, Elizak munduaren zoritxar guztiak aurkezten dizkio Aitari. Gizadia larritzen duten gaitz guztietatik ateraz, bakearen dohain bikaina eta Kristoren itzuleran saiatuz itxarotearen grazia erregutzen ditu” (Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea, 2854).

erantzuna dela baieztatuz laburtzen du sufrimendu eta gaitzaren inguruko auzia.⁴ Une gogor hauetan, non Jainkoaren maitasuna ulertzeko moduak iluntzeko joera duela dirudien, ez gaitzala etsipenak akitu. Izan dezagun uste oso Jainkoarengan eta egun hauetan, behin baino gehiagotan beren biziak ere arriskuan jarri, on egiten buru-belarri jardun duen hainbeste pertsonaren lekukotasun miresgarriaren bitartez agertu dizkigun maitasunezko ekintzetan.

II. Hitzaren Gizakundea: sakrifizioa, gupida, kontsolamendua eta errukia

13. Aurreko atalean ikusi dugu Yahveren Zerbitzariaren irudia Isaiasen lau kantiketan Jesukristoren iragarpen bezala. Jainkoaren Hitza beheratu egiten da gizakiarena den guztia bere gain hartu eta osotasunera eramateko. Sakon-sakonera jaitsiz, gizakiari kalte egiten eta sufriarazten dion guztia ere bere egiten du. San Paulok, *gizakiari dagokion guztia heriotzatik askatzeko eta osotasunera eramateko bere gain hartzen duen Yahveren Zerbitzaria aitortzen du Kristorengan*.⁵ Jainkoak ez du gizakiari dagokion ezer bere gizakundearen bidez bere egin gabe utzi. Bere gain hartzen du gure garaiko sufrimendua ere.⁶

14. Isaias profetak, Yahveren Zerbitzariaren sufrimenduaren berri eman ondoren, harritu egiten gaitu baieztapen irmo honekin: “Nire zerbitzariak arrakasta lortuko du” (Is 52, 13). Nolatan arrakasta lortuko duela? Erruduna torturatu, arantzaz koroatu eta gurutzean josiko baitute! Lor ote daiteke arrakastarik sufrimendutik. Antzeman dezakegu itxaropen-izpirik pandemiaren aldi honetan? Isaiasentzat, sufrimendua bereganatuz bizia sortzeko gaitasunean datza Zerbitzariaren arrakasta. Honela has gaitzke Jesusen maitasuna sakrifizio bihurtzen dela ulertzen. *Sakrifizioa, gaitza maite den pertsonaren alde bere egiteko gauza den maitasuna da*. Errealitate hau egunotan ere bizi dugu, makina bat lagun “guregatik sakrifikatzen ari delako”. Zer adierazten du horrek? Ondorengo adibideak lagunduko digu ulertzen: askotan gertatu zaigu, hileta batera joan eta senideren bati haxe entzutea: “Nahiago nuke bere ordezu neu hil izan banintz”. Senide maitearenganako maitasunagatik bere sufrimendua, eta baita heriotza ere, nork bere egiteko gaitasunari dagokio.⁷ Gurutzeko San Joanek zera zioen:

⁴ “Kristau fedea, bere osotasunean, erantzuten dio galdera honi: kreaioaren onberatasuna, bekatuaren zorigaitza, bere Itunekin, bere Semearen Gizonegite salbatzailearekin, Espirituaren dohainarekin, Elizaren batzarrarekin, sakramentuen indarrarekin, izakiek askatasunez onar dezaketen, baina, aldi berean, eta oraingoan ere askatasunez, egundoko misterioz, uko egin edo bazter dezakeen zorientasunen arabera bizitzarako deiarekin, gizakiaren bila ateratzen den Jainkoaren maitasun jasailea. Izan ere, neurri batean, kristau mezuaren ezaugarriak gaitzaren auziari ematen zaion erantzun direla esan daiteke” (Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea, 309).

⁵ “Kristo Jesusek, Jainko-izaerako izanik, ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi-izateaz eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion” (Filp 2, 6-10).

⁶ “Oraindik bada hainbat lauso eta ilun. Baina, gutxienez, bada inoiz Jainkoari ezin esan izango diogun zerbait: Ez zenuen sufrimendurik jasan! Izan ere, Jainkoa ez da oinazea ezabatzeraz etorri, ezta azaltzeraz ere. Baina bai etorri dela bere presentziaz betetzera. Horregatik ez inoiz esan: Ba ote da sufrimendurik? Ba, orduan Jainkorik ez! Esan, hobe, beste hau: Sufrimendua bada eta Jainkoak sufritu badu..., zein zentzu eman dio sufrimenduari?” (Paul Claudel, *Si Dios ha sufrido*).

⁷ Benedikto XVI.ak gogoratu zigunez: “Maitasunari «baiezkoa» emateak sufrimendua dakar, maitasunak neuri dagokidan hainbat gauzari uko egitea eskatzen duelako eta uko egite horietan moldatu eta zauritu egiten delako neure burua. Hain zuzen ere, ez da maitasunik izango neuretzat ere mingarria den uko

“maitasuna ez datza gauza handiak sentitzean, biluztasun handia izatean eta Maitatuaren alde jasatean baizik”.⁸ Gure bizitzaren egunerokoan sumatzen dugu hau. Eta, hain zuzen ere, zentzuzko sufrimendua sakrifizio deitzen da. Ez du esan nahi hori nahi edo bilatzen dugunik, maite ditugun pertsonen onerako askatasunez geure egiteko borondatea dugula baizik. Pandemiaren aldi honetan, esker onez ikusten dugu hainbat lagunen sakrifizio miresgarria besteen alde, hau da, besteak zerbitzatuz maitatzeko, sufrimendu eta arriskuak, baita heriotza ekar dezaketenak ere, onartzen dituzten pertsonen sakrifizioa.

15. Sakrifizioak askatasun eta eraginkortasunez bere egiten du gupida eta kontsolamenduaren iturri da. *Gupida, latineko compassio hitzetik dator, hau da, bestearekin jasatea, bestearen pasioarekin, sufrimenduekin bat egitea adierazten du.* Egun hauetan ere, gupidazko, errukizko hainbat gertaera ikusten dihardugu. Jesusek, gurekin batera sufritzeaz batera, bere egiten ditu, bere gain hartzen, gure sufrimenduak. Jesukristok bere egin zituen gure oinaze eta bekatu guztiak gurutzean, bakartasunik gogorreanean, garrasi egin zuenean: “Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?” (Mk 15, 34). Gizakiaren lehengo, oraingo eta geroko garrasi guztiak Kristoren garrasi honetan jasotzen dira. Guztiok esperimendu dugu noizbait sufrimenduak egundoko bakardadearen sentsazioa sentiarazten duela, sakonean, oinazearen barruan giltzaperatuta, geure baitan itxita ikusten dugulako geure burua. Baina horrekin batera, maitasuna sufritzen ari den pertsonarengan sartzeko eta bere bakardadea konpainiara eta samurtasunera zabaltzeko eta, horrela, itxaropen eta kontsolamenduaren argi distiratsua ernearazteko gauza dela antzeman izan dugu. *Dagoeneko ez dago bakarrik sufrimenduaren aurrean; orain bere sufrimendua kontsolatua da.*⁹

16. Eta honengatik, makaltasun eta sufrimenduaren aurreko maitasuna *erruki bihurtzen da sufritzen ari den pertsona birgaitzeko eta berriztatzeko gaitasuna duelako.* Errukia, Biblian, Jainkoaren leialtasunari lotuta dago beti, ez gaitu-eta eroraldian bertan behera uzten, gurekin egin duen itunean indartu baizik. Semeak gure haragi zauritua hartzen du, bere leialtasuna erakutsiz, bere bizia emateko, itxaropena putz egiteko eta gure izaera indarberritzeko: “Gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz gupidatu ez daitekeen norbait, zeren eta bera ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren onginahiaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun” (Hb 4, 15-16).¹⁰ Pandemiaren aldi honetan, Jesusek, beste behin ere, dena ematen du

egiterik gabe; bestela, norberekoikeria huts bihurtzen da eta, horrekin, baliogabetu egiten du neure burua maitasun bezala” (Benedikto XVI.a, *Spe Salvi*, 38).

⁸ Gurutzeko San Joan, *Dichos de amor y luz*, 114.

⁹ “Sufritzen ari den bestea onartzea, nolabait bere sufrimendua nork bere egitea da, hau, azkenean, neure izatera iristen delarik. Baina hain zuzen ere orain konpartitutako sufrimendu, non beste baten presentzia gertatzen den, bihurtu delako, maitasunaren argiak zeharkatzen du sufrimendu hori. Latineko *consolatio*, kontsolamendua, hitzak bikain adierazten du: «norbaitekin izan» bakardadean”, dagoeneko bakardade ez den horretan. Baina, era berean, gizadiaren handitasuna da sufrimendua on, egia eta zuzentasunaren alde onartzeko gaitasuna” (Benedikto XVI.a, *Spe salvi*, 38).

¹⁰ Horrela adierazi genuen 2015ean idatzitako “Bihotz errukitsua” pastoral idazkian: “Idazteunean, errukia eta Jainkoaren leialtasuna lotuta daudela ikus dezakegu. Baina, gainera, Jainkoarena, barru errukitsutat jotzen du (Lk 1, 78). Zer esan nahi du horrek? San Joan Paulo II.ak Dives in misericordia bere entziklikan gogoratu zuenez, Itun Zaharrean errukia hitza “hesed” eta “rahmin” hitz aramearren

gizadi zaurituaren alde. Samariar onaren parabola, erruki honen paradigma da. Kontakizuna amaitzeaz batera, Jesusek galdera egiten du: “«Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?». Lege-maisua erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste»”. (Lk 10, 36-37). Pandemiaren aldi hau, *gureganako Jainkoaren errukiaren eta gure lagun hurkoenganako gutariko bakoitzaren errukiaren aldia ere bada*. Azken batean, zalantzarik gabe, egunotan, beren burua, nekaezin, lagun hurkoaren zerbitzura emanez on asko egiten ari den hainbeste lagunengan islaturik ikusi dugun errukia.

III. Kreazio berria Kristo bizi eta itxaropenaren iturriarengan

17. Salbazioaren historiaren amaiera ez da heriotza, bizi berriaren osotasuna baizik. Hain zuzen ere, Jesusen Berpizkundeak birsortzeaz eta bizi berriaz hitz egiten digu. Pandemiaren testuinguruan bizi dugun Pazko aldi honetan bereziki espermentatu eta zabaldu nahi dugun errealitatea da: “Ezin izango da inor Jainkoaren erreinuaren sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada” (Jn 3, 5-6.8). Hain zuzen ere, Kristorengan bataiatuak izan direnak, Berarekin hobiratuak izan dira, bekatura hil ondoren, bizi berria izan dezaten Espirituaren arabera. Horregatik, aldi honetan, dei egiten zaigu *berri ere Kristorengandik hasi eta gizaki zaharraz, alienatzen, zoritxarreko egiten gaituzten eta bidegabekeria, gosete eta heriotzak eragiten dituzten ohitura, usadio eta egiturez gabe gaitzen*.

18. *Kreazioaren eraberritzea Espiritu Santuak gauzatutako giza bihotzaren birsortzetik abiatzen da*. Honela, Espirituak gure arteko hartu-eman berria sortzen du eta Jainkoaren Erreinuaren eraikuntza eta aterpea ematen digun eta guztiona den etxearen zainketa arduratsua ahalbideratzen duen gizarte-sarearen ulermen berria eragiten. Jainkoa, gauza guztien gaineratik, eta guztioi dagokigun aitatasunean, anai-arreba bihurtzen den lagun hurkoa, maitatzera deitutako bihotz berritua. Jainkoak gizadiarentzat prestatu duen salbazio-egitasmon laguntzean datza. Batez ere garai hauetan, eguneroko eta etengabeko lanean esku-hartu behar dugu eraikuntza horretan laguntzeko. Gutariko bakoitzak, Espiritu Santuaren goiargi eta gidaritza onartuta parte hartzen du Jainkoak gure artean jaso nahi duen bizileku berri horren eraikuntzan.

19. Horregatik, *itxaropen oso eta egiazkoa Kristorengan agertzeraren emandako Jainkoaren maitasunetik sortzen da*. Ezinbestekoa da, kristau itxaropena, itxaropen nagusia, eta itxaropen partzial edo mugatuak sortzen dituen baikortasun ideologikoa, bat ez datozela kontuan hartzea. Alde hau bereziki garrantzitsua da erronka handiei aurre egin behar diegunean, esate baterako gaur egun: “Arreta jarri behar dugu «baikortasun» eta «itxaropenezko» egintzaren egitura desberdinean bere esentzia erlatiboa begi-bistan izateko. Baikortasunaren xedea, behin betiko eta betirako mundu aske eta zorionekoaren utopia da; gizarte perfektua, non historia bere helmugara

itzulpena da. Lehenengoak Jainkoaren ontasuna adierazten du, bere maitasuna, Itunarekiko leialtasuna. Bigarrenak, amaren alderdi bat nabarmentzen du, amaren erraiak. Amak bere semeari dion maitasun leiala da. “Hesed” hitzak adierazten duen leialtasun onberaren alderdi bat, amari dagokiona, esango genuke. Honela, “rahmin” hitzak samurtasuna, eroapena eta ulermena, azken batean, barkamenerako prestasuna adierazten ditu” (6. zenb.).

iristen den eta bere jainkotasuna adierazten duen. Gertuko xedea, nolabait esatearren urruneko helburuaren segurtasuna bermatzen diguna, geure egin ahal izatearen arrakasta da. Kristau itxaropenaren helburua Jainkoaren Erreinua da, hau da, gizaki eta munduaren batasuna Jainkoarekin, jainkozko ahalmen eta maitasunezko egintzaren bitartez. Gertuko xedea, bidea erakusten eta helburu nagusiaren zuzentasuna berresten diguna, gure jardueran lagun egiten digun eta gure aukerak mugara iristen direnean laguntasun bihurtzen zaigun maitasun horren eta ahalmen horren etengabeko presentzia da. «Baikortasunaren» barne-justifikazioa, bere bidea halabeharrez bere azken xederantz mugituz egiten duen historiaren logika da; kristau itxaropenaren justifikazioa, Jeuskristorengan jainkoaren Hitza eta Maitasuna haragitzea da”.¹¹

20. Jesusen maitasunak osotasunerako bidea, itxaropen nagusia, erakutsi digu. *Maitatzea, ez dezagun ahaztu, bizia ematea da*: “Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino” (Jn 15, 13). Eta, bitxia badirudi ere, horrela aurkitu ahal izango dugu: “Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du” (Mt 16, 25). Maitasun hau zerbitzuan zehazten da. Jesusek oinen garbiketara erakusten digu.¹² Hilabete hauetan ikusten ari garenez, lagun asko eta asko jarri da kontsolamendua eta maitasuna behar duen beste hainbesteren oinetan, maitasunez zerbitzatzeko. Eta Jaunak dioena betetzen da: “Niregan sinesten duenak, nik egiten ditudan egintzak egingen ditu berak ere, eta are handiagoak” (Jn 14, 12). Baina zerbitzuak besteei gure oinak garbitzen uzteko apaltasuna ere eskatzen digu. Honi esker, *zoriontsu bizitzeko besteen, eta bereziki*, maitasun eta errukiaren iturri den *Jainkoaren, laguntasuna ezinbestekoa dela jabetzen gara*.

21. *Maitasunak bizia sortzen du beti*: maite gaituztenean, gure bizia hazi, birsortu egiten da, eta alaitasuna eta poza loratzen dira gure bihotzean. Horrela nabaritzen dugu senide eta lagun maiteen hurkotasuna bilatu dugun edo besarkadak faltan bota ditugun une gogor hauetan. *Maitasunak elkartasuna sortzen du eta bakeari bide ematen dio*. Horixe da Jaun berpiztuaren agurra: “Bakea geuri” (Jn 20, 21). Itun zaharrean, bake-kontzeptua, “shalom”, gerrarik eza edo aurkako indarren oreka hutsa adierazten duen gizarte bakea baino askoz zabalagoa da: sendatuta dagoen, osoa den, antolatuta eta orekatuta dagoen errealitatea islatzen du. Jesusek ematen digun bakea, munduak eman diezagukeen baketik desberdina da (ik. Jn 14, 27) eta, hain zuzen, geure barruaren, familiaren eta, gizartearen sendaketa eta berregite horretan datza.

22. Gizadiaren berritze sakon hau, Jaunaren berpizkundearen fruitu eta Espirituaren emaitza, aldarrikatu zuen Jesusek mendiko sermoian. *Gaur egungo erronkari aurre egiteko gauza izango gara bizitzan zoriontasunei baiezkota ematen badiegu*, gaur egungo inguruabarretan zoriontasunak bizitzeko gaitasuna badugu. Hain zuzen ere, hauxe izan da Frantzisko Aita Santuaren azken katekesien gaia. Horien sarreran, zera diosku: “Jainkoak, gurekin bat egiteko, ezin pentsatuzko bideak aukeratzen ditu askotan, beharbada geure mugenak, geure malkoenak, geure porrotenak. Pazko

¹¹ Ratzinger, J. *Kristori begiratu: fede, itxaropen eta karitatezko ariketak*, 112.

¹² “Beraz, nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere garbitu oinak elkarri. Ikasbide eman dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe, joka dezazuen” (Jn 13, 14-15).

poztasunak, ekialdeko gure anaiek aipatzen dutenak, estigmak dituenak, baina bizirik dagoenak, heriotza zeharkatu du eta Jainkoaren indarra espermentatu du. Zoriontasunak poztasunera zaramatzate, beti; poztasuna jadesteko bide dira.¹³

IV. Zoriontasunak osasun, ekonomia eta gizarte krisialdi honetarako

23. Ildo ebanjelikoari eta Frantzisko Aita Santuaren irakaspenei jarraituz, egokia dirudi krisialdi honetan zoriontasunak bizitzeko hainbat proposamen eskaintzea. *Jesusen mezuak behin eta berriro harritzen gaitu*; bihotzez behartsu izatean, negarrez egotean, Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri izatean, jazarpenean..., zorioneko izateko aukeraren aurrean, harridura edo zalantza ez den erantzunik ezin dugu eman. *Bere egituran ematen da agertzerak bere paradoxa*. Eta are gehiago, errealitate hauek bizitzeak dakartzan fruituez jabetzen bagara: zeruetako erreinua oinordetzan jaso, lurra oinordetzan jaso, kontsolamendua jaso, asetu, errukia jadetsi, Jainkoa ikusi eta Jainkoaren Seme-alaba deitu. Yahveren Zerbitzariak sufrimenduaren bitartez jadetsitako “arrakasta” dakarkigute gogora nolabait. Zoriontasunak itxaropen-ikasbide miresgarri dira.¹⁴ Jaunak adore ematen digu *zoriontasunak bizi ditzagun orain aldian poztasuna sentituz eta betierekotasunaren agintzaria itxaronez*. “Poz zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan” (Mt 5, 12). Hau da, orain aldian sufritzen duenarenganako Jainkoaren aparteko hurkotasuna iragartzen zaigu: bidean eutsi egiten dio eta poztasunera gonbidatzen. Eta etorkizunari dagokionez, bizi eta maitasunaren garaipena hots egiten da, Apokalipsi liburuan ikusi genuenez. Horregatik, Hebertarrei idatzitako gutunean esaten denez, *itxaropena betierekotasunean ainguratuta dago*.¹⁵ Zoriontasunen paradoxa-alderdi hori San Paulok ere aditzera ematen du kristauak deskribatzerakoan: “Gezurritzat jotzen gaituzte, egia esaten dugun arren; ezezaguntzat, ongi ezagunak garen arren; hiltzorian gaude, baina oraindik bizirik; zigortuak baina ez hilak; tristetzat jotzen gaituzte, baina beti pozik gaude; behartsutzat, baina beste asko aberasten dugu; ezertxo ere ez bagenu bezala, guztiaren jabe garelarik (2 Kor 6, 8-10). Mendiko sermoia ez da ezinezko moralismoa. *Behartsu, atsekabetu, errukior, otzan, bihotzez garbi, jazarki den Kristo da ulertzeko giltza*. Eta Jesusen jarraitzaileak Berarekin bizitzan bat eginik haren antzera jokatzera deituak dira. Hona hemen hainbat proposamen zehatz pandemia aldi honetan zoriontasunak kristorekin bat eginik bizitzeko.

IV 1. “Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege” (Mt 5, 3)

24. Gaur egungo egoerak, makina bat galdera pizten du gure barruan: zein zentzu du bizi dugun guzti honek? Zenbateraino eragiten du gure uste sendoetan, edo eskatzen digu erantzunik? Nola egin krisialdi honen irakurketa sinesteduna? Zer itxaroten du Jainkoak guregandik une hauetan? Nola argitzen eta gidatzen gaitu gaurko egoeran? Bat-batean, mundua aldatu egin dela konturatu gara. Beste era batera ikusten dugu. Ahul eta hauskor sentitu gara. Adam eta Ebaren jatorrizko bekatuan durundi egin zuen “jainkoen antzeko izango zarete” hura, birus batek nabarmen utzi du. Eta, sakonean,

¹³ Frantzisko Aita Santua, Audientzia orokorra, 2020.eko urtarrilaren 29a.

¹⁴ Ratzinger, J. *Kristori begiratu: fede, itxaropen eta karitatezko ariketak*. 2, 2-c kapitulua.

¹⁵ “Adorez beteak sentitzen gara aurrean dugun itxaropenari eusteko. Itxaropen hau geure bizitzaren aingura tinko eta segurua dugu, zeruko santutegi barruraino sartzen dena; hara sartu baitzen Jesus guregatik, aitzindari gisa, Melkisedeken antzera behin betiko apaiz nagusi egin” (Hb 6, 18-20).

jainkoen antzeko izateko asmoa gizakiari bere errealitatea, beti ahul eta mugatua, ezagutzea galarazten dion iruzurra baizik ez dela sumatzen dugu. *Mugak onartzea da jakinduriaren sorburua.*¹⁶ Horregatik une egokian gaude bizitzaren benetako zentzua bilatu eta geure bizitza pertsonalari, familia eta gizarte bizitzari norabide berria emateko. *Funtsezkora itzultzea*, bizitzan ditugun jarrerak berriz aztertzea, bizi berrira birsortzea, gure bizitza munduak eskain ditzakeen segurtasunak baino errealitate sendoagoan sustraitzea, *ezinbestekoa* dela sumatzen dugu. Bibliako hizkeran, *“metanoia”* edo *bihotz-berritzea* deitzen dena da. Maitasunez sortuak izan garela eta Jainkoaren maitasunak gertakizun eta inguruabar guztietan itxaroten eta laguntzen gaituela konturatzeko abagunea da. Jainkoarengana bihurtzeko eta bere maitasunari gure bizitzak bustitzen uzteko aukera egokia da.

25. *Pandemia hau Elizarentzat eta bere misioarentzat ere dei da eta erantzun ematera bultzatzen du: “Ulertzeko gauza denak uler beza Espirituak eliz elkarteei esaten diena”* (Ap 3, 6). Gizabanakoak, elkarteak eta erakundeak lekukotasun, iragarpen eta zerbitzuari lotutako egiteko anitz eta askotarikoetan dena ematen, zerbitzatzen eta erantzun miresgarria ematen ikusi ditugu. Baina egoera honetan, zer diotso Espirituak bere Elizari? Nola irakurri garaieen zantzuak une honetan? Nola erantzun Eliza bezala aurrez aurre ditugun erronka berriei? Nola bideratu gure egitekoa bizitza pertsonaleko, familia eta gizarte bizitzako eremu guztietan krisiak duen eragina aintzat hartuta? datozen hilabeteetan, osasun-segurtasunak baldintzatutako egoera berri honetan, herritarren babeserako konponbide eraginkorrak aurkitzen diren bitartean. Zirrara sozial eta ekonomikoa, handia dela ikusten ari gara, baita parrokien bizitzan, misioan eta eliz jarduerari diruz eustean. Horregatik, ezinbestekoa da alderdi guztietan Jainkoaren Herriko kideon ardurakidetasun eskuzabala suspertzea erronka berriei aurre egiteko.

IV 2. “Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitz emandako lurraz” (Mt 5, 5)

26. *Familia agertzen da, oraingoan ere, erakunderik garrantzitsuen bezala*, bertan baldintzarik gabe hartzen eta maitatzen gaituzte-eta. Egun hauetan, familian konfinatuta egon gara. Faltan bota ditugu urrun egonda, laguntzerik eta besarkatzerik izan ez ditugunak. Familian zaindu eta mantendu egin gaituzte. Fededunok, gainera, benetako etxeko Eliza bezala sentitu dugu. Bertan, txikienak, desgaitasunen bat dutenak edo pertsona nagusiak nolako arretaz zaintzen diren ikusi dugu:¹⁷ dohain bikain dira geure bizitzarako eta gizarterako; ematen diguten guztia eskertu eta gure maitasuna adierazi nahi diegu. Azken krisi ekonomikoa, familia bere eragin

¹⁶ “Bakoitzak, bere buruaren aurrean, ondo daki, lanari ekiten badio ere, beti erabat osagabe eta ahul geratuko dena. Ez dago ahultasun hau estaliko duen trikimailurik. Gutariko bakoitza, ahula da. Non ikusi behar du. Baina, zein gaizki bizi den norbait mugak atzera botaz gero! Gaizki bizitzea dakar horrek. Ez da muga gainditzen, baina hor dago. Pertsona harroek ez dute laguntzarik eskatzen, bere burua aski duen norbait bezala agertu behar dute-eta. Eta horrelako zenbatek behar duen laguntza, baina harrokeriak onartzea galarazten die. Eta zein zail egiten zaien akatsa onartu eta barkamena eskatzea” (Frantzisko Aita Santua, Audientzia orokorra, 2020.eko otsailaren 5a).

¹⁷ “Gogora dezagun, gurekin bizi den pertsona horrek dena merezi duela, duintasun infinitua duelako Aitaren egundoko maitasunaren hartzaila izateagatik. Horrela sortzen da bestearengan maitatua sentitzearen poztasuna eragiten duen samurtasuna. Batik bat bestearen mugetara, batez ere nabarmen agertzen direnean, arreta apartaz hurbiltzean adierazten da” (AL, 323).

kaltegarriak arintzeko funtsezko erakunde bezala agertu zen. Familia asko eta asko, esate baterako, beren pentsioak batera jarri zituzten, txikienen zainketan esku-hartu zuten aiton-amonon laguntzarekin atera zen aurrera. Halaber, familia, beste behin ere, gertuko ospitale bezala agertu da oinazetsuentzat, direna eta daukatena behartsuener artean banatuz, hurkotasuna erakutsiz eta bakarrik bizi diren edo etxetik atera ezin daitezkeen pertsoneri lagunduz.¹⁸ Beste hainbat familia, ostera, pobretasunaren atalasean ikus dezakegu, gizarte laguntzetara jo beharrean daude hilaren azkenera heltzeko, larritasunez bizi dute lanik eza eta etorkizunari beldurrez begiratzen diote. Horregatik, nahitaezkoa dogu era bateko eta besteko neurriak bultzatzea familiei sostengua emateko, bazterketan jausi ez daitezkeen edo sufrimendua eta larritasuna sortzen dien zailtasun ekonomiko edo bestelako zailtasun penagarririk jasan ez dezaten.

27. Aldi berean, *gure gizarte hartu-emanak zaindu eta sendotu* egin behar ditugula konturatu gara. Adiskide eta ezagunekin harremanik izan ez dugunean jabetu gara nahitaezko ditugula gure bizitzetan. Buruz buru elkartzeko zailtasunen eraginez, bereziki baliagarri gertatu diren ohitura berriak garatu ditugu bat egiteko: bideo-deiak, gizarte sareen bidezko komunikazioa, on-line hezkuntza, telelana, on-line erosketak. Beren balioaz jabetuta eta egundoko laguntza ematen digutela aitortuta ere, gizarte bizitzaren esperientzia bete faltan botatzen dugu. ‘Ziberjagoletza’, ‘big data’ eta ‘adimen artifiziala’ bezalako tresna berrien baliagarritasuna ezagutu dugu, eremu askotan interes eta laguntza handiko diren eta beti ere gizabanako eta erakundeen intimitate eta pribatutasuna babestuz erabili behar diren tresnak.

28. Halaber, bakoitzak bere errealitatea eredutzat hartzea dakarten lokalismoak gainditu eta elkarlanaren mesedeez jabetuz, *herri eta nazioen arteko lankidetzeta eta elkartasuna sendotzea* beharrezkoa dela ohartu gara. Alderdi hau bereziki garrantzitsua da gutxiago garatuta dauden herrialdeetan, non bizi-baldintza zailek okerrera egin duten pandemiaren eta bere eragin ekonomiko eta sozialak direla-eta. Gogoan ditugu Afrika eta Amerikako Eliza ahizpak, senidetasunezko lokarriek lotzen baikaituzte beraiekin. Berri kezkarriak jaso ditugu bizitzeko behar-beharrezkoa ere falta zaion familia askoren behin-behineko ekonomiari buruz. Bidali dugu larrialdiari aurre egiteko lehen laguntza eta aurrerrantzean be areagotu egin nahi dugu lankidetzeta, Euskal Elizbarrutietako Misioen eta Iruña eta Tuterako Elizbarrutiko Caritasen bidez.

29. Batasun Europarrean txertatutako herrialde izanik, krisi hau aukerako abagune bezala agertzen da *Europak*, osatzen duten herrialdeen artean, eta nazioarteko hitzarmenean, *lankidetzeta eskuzabal, leial eta eraikitzaileko guztion etxe* izateko bokazioa erakutsi dezan. Honela, “guraso sortzaileek”, uste sendo kristauak zituztenek, amestu zutena gauzatzeko gai izango gara. Krisi ekonomikoaren aurrean, benetako gizarte karitatea bultzatu behar dugu, denon artean, une honetan behar larria duten herrialdeei ezinbesteko laguntza emateko.

30. Konfinamenduan igarotzen ari garen aste hauetan, hobeto jabetu izan gara *izadiaren dohainaz*. Irrikatzen egon gara berriz ere basoez, mendiez, hondartzez,

¹⁸ “Familiak harreragile izan eta besteengana, bereziki behartsu eta baztertuengana, irteten denean, Elizaren amatasunaren sinbolo, lekukotasun eta parte da” (AL, 324).

itsasoaz, kanpoaz, txorien txioaz,... noiz gozatuko. Eta denona den etxea ardura handiz zaintzea guztiz premiazkoa dela ohartu gara, eta horretarako ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko ohitura berriak sustatu behar ditugula, hala nola: kontsumo arduratsua, energia garbien garapena, kutsaduraren aurkako borroka, birziklatzearen sustapena, zaborren osoko kudeaketa, ura eta klimaren zainketa, bioaniztasunaren babesa, giza bizitza hondatu, gizarte narriadura eragin eta pobretasun eta bidegabekeriak sortzen dituzten bazterkinen kulturari uko egitea.¹⁹ *Laudato Si* entziklikan, Frantzisko Aita Santuak dei egiten digu benetako osoko ekologia bultzatzea dezagun. Kreatzioaren zainketa estu lotuta dago giza bizia, batik bat hauskor eta ahulena, sortzetik heriotza naturaleraino zaintzeari; familiaren zainketa; gizakia erdigunean jarriko duen elkartasun-ekonomiaren garapena; transzendentziara irekitako senideen arteko eta itxaropenez betetako gizartearen eraikuntza; gizakia alienatzen duten bekatzeko egiturak gaindituz denona den etxearen zaintza. Zainketa hau estu lotuta dago narriadura ekologikoak gehien kaltetzen dituen *behartsuen aldeko lehentasunezko aukeraren* sustapenari. Pandemia honen bizipenak alderdi hauen inguruan hausnarketa sakona egitera *eta gure ohitura eta bizimoduak aldatzeko bihurtzera* eroan behar gaitu.

31. Jakin dugunez, *ikerketak zientifikoa* saiatzen ari da pandemia honi aurre egiteko neurri eraginkorrak aurkitzeko eta gaixotasunarentzako tratamendua eta prebentzio eraginkorra bilatzeko. Gure esker ona adierazi nahi diegu gizadia kaltetzen duten gaixotasunei aurre egiteko lanean diharduten zientzialari eta ikertzaileei. Zientzia biomedikua zoritxarrez entzutetsu izan diren beste garai batzuetako pandemiak desagerrarazteko eta duela gutxira arte garaitezinak ziruditen gaixotasunak menderatzeko gauza izan da. Horregatik, zientziaren arloan ari direnei *adore eta konfiantza erakutsi nahi diegu gizon eta emakume bakoitzaren bizi eta duintasunaren aldeko zerbitzuan*.²⁰ Ezinbestekoa da gizakiaren esanetara dagoen eta, ondorioz, bere jarduerak ikertzailea gizakiaren duintasun besterenezina funtsezko erreferentzia etikotzat duen zientziaren garapena sustatzea.²¹

IV 3. “Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko” (Mt 5, 4).

¹⁹ “Guztion etxea babesezko premiazko erronkak barne hartzen du giza familia osoa garapen iraunkor eta osokoaren bilaketan biltzea, jakin baitakigu gauzak alda daitezkeena. Kreatzaileak ez gaitu bertan behera uzten, inoiz ez zuen atzera egin bere maitasunezko egitasmoan, ez da gu sortu izanaz damutzen. Gizadiak oraindik badu guztion etxea eraikitzen laguntzeko gaitasunik. Giza jardueraren era bateko edo besteko eremuetan, guztiona den etxearen babesa bermatzeko ahalegintzen diharduten guztiak aitortu, adoretu eta eskertu nahi ditut. Aparteko eskerrona merezi dute ingurumen-narriaduraren ondorio ikaragarriek munduko behartsuenean bizitzetan eragiten dituzten arrasto negargarriei aurre egiteko buru-belarri borrokatzen dutenek” (LS, 13).

²⁰ “Elizak itxaropenez begiratzen dio ikerketak zientifikoari, eta kristau askok biomedikuntzaren aurrerapenean lagun dezatela eta arlo horretan beren fedearen lekukotasuna eman dezatela nahi du. Gainera, ikerketak honen emaitzak ingururik pobreenetan, era guztietako gaixotasunek astindutako inguruetan jarduten dutenen esku ipintzea da bere nahia, behar premiazko eta gogorrenei ikuspuntu humanitariotik aurre egin ahal izateko” (Fedearen Doktrinarako Kongregazioa, *Dignitas personae*, 3).

²¹ “Irizpide orientatzaileak ezin dira ez eraginkortasun tekniko hutsetik, ez batzuei beste batzuen kontura ekar diezaiaketen baliagarritasunetik ezta, are gutxiago, nagusi diren ideologietatik ere. Berezko esanahiagatik beragatik, zientziak eta teknikak moralitasunaren oinarritzko irizpideen baldintzarik gabeko errespetua eskatzen dute: gizakiaren, beren-beregi berari dagozkion eskubideen eta Jainkoaren egitasmo eta borondatearen araberrako gizakiaren benetako eta osoko onaren esanetara egon behar dute” (Fedearen Doktrinarako Kongregazioa, *Donum vitae*, 2).

32. Heriotzak gogor astindu gaitu. Pandemiak sufrimendu benetan lazgarria eragin du makina bat familiaren bihotzean; senide maiteak gaixotu, hil egin zaizkie, askotan nahi izango zuketena laguntasuna eta kontsolamendua eskaini ezinik. Hauxe da, beraz, *egun hauetan beren senide eta adiskideen heriotzaren eraginez negarrez daudenei leuntasun eta sentikortasunez lagun egiteko unea*.²² Azken hitza ez da ‘heriotza’, ‘berpizkundera’ baizik. Biziak heriotza garaitu egiten duela erakusten digu Kristok: “Zergatik zabilzate hilen artean, bizi denaren bila? Ez dago hemen, piztua da” (Lk 24, 5-6). Kristoren garaipena, geure garaipena ere bada, Bera hilen artean ‘oinordeko’ delako: “Hilik baitzaudete, eta egiazko zuen bizia Kristorekin dago Jainkoarengan gordea” (Kol 3, 3). Eskerrak eman nahi dizkiegu apaizei, diakonoei, ospitaletako kapilaei, kontsokratuei, parrokia elkarteei, pastoral eragileei eta osasun pastoraltzarako taldeei, gaixoei eta hiltorian zeudenei emandako laguntzagatik eta haien senide eta adiskideei eskainitako hurkotasun eta kontsolamenduagatik. Askok adiskidetzaren sakramentua, gaixoen oliadurarena eta eukaristia-komunioa hartu ahal izan duela jakiteak lasaitu egiten gaitu. Egunero, Eukaristia ospatu izan dugu hildakoen alde. Geure hurkotasun eta maitasuna adierazi nahi diegu familiei beren senide eta lagun maiteen alde otoitz eginez eta doluan errespetuzko akonpainamendua eskainiz. Kultu publikoari berrekinez, gure anai-arreben arimaren aldeko hileta-elizkizunak egokitasunez antolatzeke aukera izango dugu. Uztailaren 25ean –larunbata-, Santiago Apostoluaren Egunez, gure katedraleetan ospatuko dugun Eukaristian bat egitea erabaki dugu. Eukaristia hori, alarma-aldi honetan hildako guztien alde eskainiko dugu, beren senide eta adiskideen bihotza kontsolamenduz eta bakez bete daiten.

33. Halaber, *geure esker ona adierazi nahi diegu osasun arloko profesionalei, zaintzaileei, osasun pastoraltzarako taldeei eta boluntarioei*, eginahalak egin baitituzte gaixoei arreta egokia eskaintzeko. Beraien alde otoitz egin dugu Jainkoaren sostengua jaso dezaten sendotasunaren dohainaz. Gaixoen arretan erakusten ari diren egundoko gizatasun eta profesionaltasunaren inguruko hainbat lekukotasun jaso dugu. Gaixoen, pertsona nagusien eta desgaitasunen bat dutenen egundoko balioa berretsi nahi dugu beste behin ere. Benetako dohain dira guztiontzat. Bizirako Pontifize Akademiak gizaki ororen duintasuna argi eta garbi antzematen lagundu digu, horrexek izan behar duelarik zerumuga etikoa egoera kritikoan dauden gaixoen aldeko arretan. Hain zuzen ere, egoera zailetan erabakiak hartzerakoan lagungarri izan daitekeen hainbat argibide eskaini digu.²³ Gure eskerrik beroena, egunotan, ospitaleetan, beren etxeetan edo egoitzetan gaixo eta pertsona nagusiak arduraz, beren osasuna, eta kasu batzuetan bizia, arriskuan jarritz, zaindu dituzten guztiei.

²² “Etengabe eskaini behar dugu fedearen argia une hauetan sufritzen ari diren familiei lagun egiteko... Normalean, luze jo dezake hildakoengatik egiten den doluak, eta artzainak prozesu horretan lagundu nahi duenean, aldi bakoitzeko beharretara egokitu behar du... Hildakoen erabateko suntsiketarik ez dagoela jakiteak kontsolatu egiten gaitu, eta BERPIZTUAK inoiz ez gaituela bertan behera utziko ziurtatzen digu... «senide eta lagun maiteak ez direlako ezerezaren iluntasunean desagertu: itxaropenak ziurtatzen digu beraiek Jainkoaren esku on eta sendoetan daudena»” (ik. AL, 253-256).

²³ “Antolaketa-mailan errazionamendua saihesteko ahal den guztia egin ondoren, kontuan izan behar da beti erabakia hartzean ezin dela bereizketarik egin biziaren balioan eta pertsona bakoitzaren duintasunean, beti berdinak eta guztiz baliotsuak direlako. Erabakia, batik bat, gaixoaren beharren araberrako tratamenduen erabilera ahalik eta onenari lotuta dago [...]. Adina ez da aukeraketarako irizpide bakar eta automatikoa izango” (Bizirako Pontifize Akademia, Pandemia eta senidetasan unibertsalak, Covid-19 larrialdiari buruzko oharra, 2020.eko martxoaren 30a).

IV 4. “Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko” (Mt 5, 6).

34. Zoriontasunak eskuzabaltasunez eta arduraz jokatzen duen makina bat pertsonarengan islatzen direla ikusi dugu. Eskerrak ematen dizkiogu Jainkoari *karitatearen martiritza* berriaren lekukotasunagatik, konfinamenduaren eta normaltasunera igarotzeko prozesuaren ataka zailean lasaitasunez eta itxaropenez jarduten lagundu digutenen ahaleginagatik. Gainean dugun krisi ekonomiko eta sozial honek soiltasun pertsonalean, eskuzabaltasunean eta konpromisoan ahaleginak areagotzea eskatzen digu.²⁴ Ezinbestekoa da Jainkoaren Herri osoak *benetako elkartasun-ekonomiaren ezarpenean esku-hartzea*, ekonomia eta lan jardueraren erdian gizakia jarritz. Kaltetuenen, ahulenen edo gizarte bazterketa jasateko zorian daudenen artean “askotariko bazterkinak” saihesteko lan egin behar dugu nahitaez.

35. Pandemiaren eragin ekonomikoak familia askoren eta, orokorrean, gizartearen hondamen bihurtu dira. Hainbat denda behin betiko ixteko zorian da; familia asko eta asko ez da hilaren azkenera heltzen; enpresa txikiak nekez gaintutuko dituzten galerei aurre egin behar diete; makina bat langileri ezarri zaio enplegu-erregulazioa eta beren lan-etorkizuna zalantza betirik dago; langabezia-tasaren igoera handia izan da; ondasun eta zerbitzuen eskaerak behera egin du nabarmen; zaila da ekonomia pizteko neurriak eta prebentziaorako osasun-neurriak uztartzea; gizarte eta ekonomia kostua egundokoa da eta etorkizuna hipotekatzen du; egoera honek beldur eta etsipena eragiten du herritarrengan. Errealitate hauei aurre egiteko, ezinbestekoa da *ekonomia, enpresa eta lan sareari laguntza eraginkorra* ematea, ondasunak sortzeko eta enplegu egonkor eta kalitatezkoari eusteko eta berria sortzeko.²⁵

36. Lana funtsezko elementu antropologikoa da eta gizartearen osagarria. Kontuan hartu behar dugu «lana gizakiaren jatorrizko izaerari dagokiola eta bere erorketaren aurretik doala; ez da, beraz, ez zigorra, ezta madarikazioa ere».²⁶ Langileen eta langabetuen artean gizarte giza arrakala larria ireki da eta ezinbestekoa da hori ekiditea. Horregatik, premiazkoa da *lanpostuen suntsiketa saihestu*²⁷ eta *lanpostuen*

²⁴ “Benetan, bidegabekeriek gizadia zauritu egiten dute; gizarteak behar-beharrezkoak ditu berdintasuna, egia eta gizarte zuzentasuna; gogora dezagun munduko emakume eta gizonek jasaten duten gaitza Jainko Aitaren bihotzera heltzen dela” (Frantzisko Aita Santua, Audientzia orokorra, 2020.eko martxoaren 11).

²⁵ Benedikto XVI.aren esanetan, gizakiak jarduera ekonomikoan duen lehentasunak jarduera ekonomikoaren eta enpresa bakoitzaren antolaketa eta jardueren osoko ikuspuntua aldatzea eskatzen du. Horri dagokionez, zera diosku: “gizatasunez beteriko benetako harremanak bizi daitezke, adiskidetasun, elkartasun eta elkarrekikotasunezkoak, baita ekonomia jardueran ere eta ez bakarrik kanpoan edo jardueraren «ostean» (*Caritas in veritate*, 36) Gainera, Benedikto XVI.ak beste hau dio: “ekonomiak, gizatasuna eta partaidetza susta ditzan, langilea sortzaitzat jo behar du, berea den zerbaiten ari dela lanean sentiaraziz. Beste alde batetik, guztien onerako –publikoa, pribatua, irabazi asmoarekin, irabazi asmorik gabe, gizarte ekimena, ekonomia aurreratuak, garapen bidean daudenak, e.a.- elkar-eraginean jardungo duten enpresa-ereduak garatzea proposatzen du. Horrek gizatasuna gehitzea, aberastea, eta guztion ona sustatzea ekarriko luke” (*Caritas in veritate*, 41).

²⁶ CDSi, 256.

²⁷ “Horregatik, lan murrizketak mahaigaineratzen dituzten egoera zehatzen aurrean, funtsezkoa da bai enpresak eta bai indar sindikalak ere, langileak eta botere publiko eskudunak bidezko bide guztietatik, eta kasuan kasuko aukeren barruan, kaleratze iraunkorrak saihesteko formulak bilatzen saia daitezela” (Euskal Herriko eta Nafarroako Gotzainak. *Ekonomia gizakiaren esanetara*, 2011, 29).

sorrera eragingo duten neurri egokiak ezartzea. “Luzaro lanik gabe egotea, edo laguntza publiko edo pribatuaren menpe egoteak, gizakiaren askatasun eta sormena eta bere familia eta gizarte harremanak hondatu egiten ditu, maila psikologiko eta espiritualean kalte larriak eraginez”.²⁸ Bizimodu duinerako behar adina sarrerarik lortu ezin denean, sostengua eman behar diegu langabetuei, ahulenei eta gizarte bazterketa jasateko arriskua duten familiei egoerari aurre egiten lagunduko dieten mekanismoak martxan jarritz, esate baterako: diru-sarrerak bermatzeko errenta Euskal Herrian edo errenta bermatua Nafarroan.

IV 5. “Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango” (Mt 5, 7)

37. Errukia, lehen ikusi dugunez, zaurituta eta lur jota dagoen anai-arrebaren aurrean, dena ematen duen maitasuna da; ongizatea eta osasuna berreskuratzen laguntzen dio. *Arreta pertsonal eta espiritual* bereziki beharrezkoa dute sufritzen daudenek eta, batik bat, pertsona nagusiek, bakarrik bizi direnek eta gaixoek.²⁹ Errukizko lekukotasunak, handiak dira inguruabar hauetan. Familiak pazientzia eta sendotasunez bizi izan dute konfinamendu aldia, haurrak eta pertsona nagusiak zainduz. Kristau elkarteek, beren laiko, apaiz, diakono eta kontsokratuek, Jesus Jaunaren presentziari bizirik eutsi diote eta fededunei arreta eskaintzen diete beren behar material eta espiritualak asetzeko. Parrokiek eta parroketako Caritas taldeek, beste eliz eta herri erakunde batzuekin batera, ahaleginak biderkatu dituzte behartsuenei laguntza emateko. Osasun arloko profesionalek, boluntarioek, suhiltzaileek, segurtasun indarrek, zerbitzu publikoek eta erakunde publiko eta pribatuek atsedean gabe jardun izan dute gaixoei, beren familiei eta herritar guztiei arreta eskaini ahal izateko. Beren-beregi gogoratu nahiko genituzke pandemiaren ondorioen eraginez gogortasuna nabarmen jasan duten nagusien egoitzetan bizi direnak; eta eskerrak eman, pertsona horien beharrei aurre egiteko eginahalak egin dituzten zaintzaileei. Politika, ekonomia, enpresa, lan eta gizarte arloan dagokien erantzukizuna betetzen ari diran pertsonen ere egoerari aurre egiteko ezinbesteko akordioak bilatzen dihardute. Eta langile anonimo askok eta askok ezinbesteko osasun eta zerbitzuen horniketa ziurtatu du. Nola ez diegu adieraziko gure aitormena eta esker ona?

38. Guzti horiek, Jainkoak une zail hauetan gure alde erakusten duen maitasunaren adibide eta errukiaren zeinu dira. Egoera honek *gizarte maitasuna gauzatzeko era berria bultzatzearen* beharraz hausnartzera garamatza. Maitasun honek, politika jardunak sustatuta, maitasunaren benetako zibilizazioaren sustapena ahalbideratzen du, bazterketarik gabekoa, jaio gabeen, desgaituen, edadetuen, hilzorian daudenen, bazterketa jasateko erabateko edo besteko arriskua dutenen bizia babestuz, etorkinak eta bizilekurik gabekoak hartuz, bazterkinen kulturari aurre eginez. Bokazio hau

²⁸ Benedikto XVI.a, Caritas in veritate, 25.

²⁹ “Akonpainamendu nahiz laguntasun espiritual edo erlijiosoa, gaixoen eskubideen arautze desberdinetan aldarrikatutako eskubide dira eta aparteko garrantzia jadetsi dute azken urte hauetan gure osasun sistema nazionalaren gizatiartze-egitasmoen barruan. Eskubide bezala dagoeneko araz aitortuta, bideak jarri behar ditugu beren mugatzea bakarrik etika eta lege aldetik ez justifikatzeko eta mugatze hori ahalik eta arinena izan dadin eta, azkenean, erabateko ukatze bihur ez dadin” (Bioetikarako Espainiako Batzordearen Adierazpena COVID-19az jotako gaixoei euren bizitzaren azkenean eta ahulezia larriko egoeretan akonpainamendu eta laguntasun espiritualak emateko eskubide eta betebeharrari buruz, 2020.eko apirilaren 15a).

zerbitzatua izatera ez ezik zerbitzatzera etorri zen Jesusen irudira, sinestedunen bizitzaren eukaristia-eraren zehazpena da. *Politika gizakiaren eta guztion onaren esanetara dagoen maitasun-bide nagusienetakoa da*, egian, zuzentasunean, maitasunean eta errukian garatu behar dena. Kristau fededunen artean sustatu egin behar dugun³⁰ bokazioa da³¹, apaltasun eta erantzukizunez, zerbitzuzko jarrerarekin eta uste sendo etiko sakonekin garatzekoa.

IV 6. "Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa" (Mt 5, 8).

39. Jainkoaren maitasunetik sortzen den espiritualtasun sendoa eskatzen duten erronka handiak ditugu aurrez aurre. Aurrera begiratu ahal izateko, gora begiratu behar dugu. *Giza biziaren zentzu sakon eta azkena bakarrik Kristoren argitan ezagut daiteke bere betetasunean (ik. GS, 22)*. Eliza familia handia da, elkartasun-misterioa, Kristoren pazko-misteriotik sortutakoa. Bizi ditugun konfinamendurekin eta zailtasunekin batera, *herri izatearen gozamina* dastatu dugu.³² Elizak, elkartasun-misterio bezala, Jainkoaren maitasuna munduan agertzera ematen du bere Hitzaren, sakramentuen, bereziki Eukaristiaren, eta, apaizen ministerioaren eta laiko eta kontsakratuen misioaren eskutik, behartsuen aldeko zerbitzuaren bitartez. Biziki eskertzen dugu guztion ahalegina, ahalmen sortzailez egitekoei askotariko pastoral eremuetan eutsi zaielako, gizarte sareen, web orrialdeen eta komunikabideen bidez iragarpena egin delako, kristau sarbideko prozesuek aurrea egin dutelako, Caritasen eta beste eliz erakunde batzuen bidez maitasunezko zerbitzua eman delako, fedea ospatu egin delako eta eliza ahizpekiko lankidetzaz sustatu delako.

40. *Eukaristia, Eliza onbideratzen duen maitasun eta batasunaren sakramentua da. "Eliza Eukaristiatik bizi da. Egia horrek, ohiko fede esperientzia adierazteaz gainera, Elizaren misterioaren muina laburbiltzen du".³³ Eukaristia bizi-iturri da fededunentzat eta kristau bizitzaren osotasun.³⁴ Horregatik bereziki mingarria izan da konfinamendu*

³⁰ "Politika ez da agintea, baliabideak edo krisiak administratzeko trebetasun hutsa. Politika ez da, besterik gabe, eraginkortasuna, estrategia eta ekintza antolatua bilatzea. Politika zerbitzatzeko bokazioa da, guztion ona sorrarazteko gizarte adiskidetasuna sustatzen duen laiko diakonotza. Honela bakarrik laguntzen dio politikak herriari bere historiako protagonista izan dadin eta "klase buruzagi" deitutakoek dena erabaki dezaketanak beraiek bakarrik direla sinetsi ez dezaten" (Frantzisko Aita Santua, Hego Amerikarako Pontifize Batzordeko talde bati egindako berbaldea, 2019.eko martxoaren 4a).

³¹ "Ezin da esan fedearen eskakizuna bakarrik erakunde jakin baten barruan gara daitekeenik. Ez kristau orok ez du bokazio politikorik, ez bide politikoa da zuzentasunezko jarduerarako bide bakarra eskaintzen diguna. Badira fedea zuzentasunaren eta guztion onaren aldeko lan bihurtzeko beste era batzuk. Ezin zaio Elizari, edo bere eliz sinboloei, jarduera politikarako mekanismo bihurtzea eskatu. Politikari ona izateko ez da nahitaezkoa kristau izatea, baina jarduera politikoa diharduen kristauak derrigorrez aitortu behar du bere fedea. Eta horretan, arlo honetan fedearikiko leialtasunaren eta erakundearekiko leialtasunaren artean gatazkarik sortuko balitz, benetako kristauak nahiago izango luke bere fedea, eta zuzentasunaren aldeko bere borroka, Jainkoaren Erreinuaren zuzentasunaren —eta ez beste inongo zuzentasunaren— aldeko borroka dela erakutsi. (San Oscar Arnulfo Romero, homilia, 1978.eko abuztuaren 6a).

³² "Jainkoaren Hitzak herri garela aitortzera ere dei egiten digu: «Garai batean herri ere ez zinetenok, orain Jainkoaren herri zarete» (1Pe 2,10). Benetako ebanjelizatzaile izateko beharrezkoa da jendearen ondoan egoteko gogoia izatea ere, horrek goragoko poza ematen duela konturatzeraino. Misioa Jesusenganako grina da, baina aldi berean herriarekiko grina ere bai" (EG, 268).

³³ San Joan Paulo II.a, *Ecclesia de Eucharistia*, 1

³⁴ "Kristau bizitza osoaren iturburu eta gailur den Eukaristiako sakrifizioan parte hartzean, jainkozko oparia eskaintzen diote Jainkoari eta harekin batera beren buruak. Honela, bai eskaintzaz eta bai

aldian eukaristia-ospakizunetan fisikoki parte hartzerik ez izatea eta, senideak kontsolatuz eta babestuz, hildakoen aldeko hileta-elizkizunik ez egitea. Baina Eukaristia ospatu izan da elizetan. Ospakizun hau oso garrantzitsua izan da Jainkoaren Herri osoaren batasuna aditzera emateko eta gauzatzeko, kide guztien arteko elkartasuna sortuz, elkartasun honetan heziz eta elkartean kide izate hori Eukaristiaren ea Elizaren bitartez biziz. Jainkoaren grazia, mugak gainditzeko gauza da eta ezohiko aldi honetan espirituz bat egin dugu ospakizunekin. Eukaristia, eliz bizitzaren bihotzean dago pazko misterioaren sakramentu nagusi delako,³⁵ Herri bezala eratzten duelako kideen artean elkartasuna sortuz eta kideok Jainkoaren Erreinua gizartean sustatzera eta behartsuenak zerbitzatzera bultzatuz. *Misio honek inspiratzen ditu laiko fededunak eukaristia-ospakizunean ematen zaigun Jainkoaren Espirituaren arabera mundu honetako errealitateak antolatzen aritzeko.*³⁶ Espiritu sortzaileak inspiratuko ditu bide berriak Jesukristo, “bat bera atzo, gaur eta beti” (Heb 13, 8) agertzera emateko, baita egoera honetan ere. Geure egin nahi ditugu “oraingo gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak, batez ere behartsuenak eta nahigabetu guztienak” (GS, 1) eta geure berariazko bokazio eta misiotik guztion onaren alde egin, gizarte errealitatea osatzen duten gainerako talde eta erakundeekin batera.

IV 7. “Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko” (Mt 5, 9).

41. “Shalom” hitzak, aurrerago esan dugunez, sendaketa, ordena, zuzentasuna, osotasuna adierazten du. Berritutako bihotzetik sortu eta errealitate osora hedatzen den dohaina da. Elizaren Doktrina Sozialaren oinarriek eraginkortasunez bidera dezakete Elizaren eta askotariko erakundeen jarduera *gizarte bakerako funtsezko osagai bezala aurkeztutako zuzentasunaren sustapenean*. Horregatik, ezinbestekoa da guztion onaren bilaketa jarduera ororen oinarri gidari bezala garatzea; erantzukizuna sustatzen duen subsidiarotasuna sustatzea; lorpenetan eta giza aurrerapenean parte izateko eskubidea duten herri txirotuekin banatzera garamatzen ondasunen jomuga unibertsalaz jabetzea; ekonomia eta gizarte eremu guztietan lankidetzat sustatzea.

42. Elizaren Doktrina Sozialaren oinarrien ezarpenaz gainera, *indarrean dagoen ordenamendu juridikoa zuzenbidezko estatuaren funtsezko eredu bezala agertzen da guztion ona sustatzeko eta gizarte bakea gordetzeko.*³⁷ Subsidiarotasun oinarria,

jaunartze santuaz, guztiek burutzen dute nork bere egitekoa elizkizunean, ez guztiek era nahasian, nork berari dagokion eran baizik. Jaunartzean Kristoren Gorputzaz janariturik, era zehatzean agertzen dute Jainkoaren Herriaren batasuna, sakramentu santu honek hain ongi adierazten eta hain miragarriro egiten duen batasuna” (LG, 11).

³⁵ Ibid. 3.

³⁶ “Ezin gara geldi geratu mundu osoan aberatsen eta behartsuen arteko aldea neurrigabe hazarazten duren globalizazio-prozesuen aurrean. Salatu egin behar dugu lurreko aberastasunez neurritz kanpo baliatzen den oro, onartezinak diren desberdintasunak eragiten dituelako... Esate baterako, ezinezkoa da iheslari edo errefuxiatuen kanpamentu erraldoietatik iristen zaizkigun irudi ikaragarrien aurrean isilik geratzea... Ez ote dira geure anai-arrebak?... Jesus Jaunak, betiko biziaren Ogiak, premiazko deia egiten digu eta gizadiaren gehiengoak gaur egun ere jasaten dituen pobretasunezko egoeren aurrean adi egoteko eskatzen: sarritan gizon eta emakumeen aldetik erantzukizun argi eta kezkarria agertzen duen arrazoiak eragindako egoerak dira” (Benedikto XVI.a, Sacramentum caritatis, 90).

³⁷ “Aginte politikoa da koordinazio- eta zuzendaritza-bitartekoa; beronen bitartez, partikularrak eta bitarteko gorputzak harreman, erakunde eta prozedurak osoko giza hazkundearen zerbitzura dituen antolamendura bideratuko dira. Aginte politikoaren garapena, hain zuzen ere, «elkartean bertan nahiz

askotariko administrazioen arteko ezinbesteko koordinazioa sustatzeko prestasuna, talde politiko desberdinen arteko elkarriketa eta akordioen bilaketa, agente eta erakunde anitzen eskumenak errespetatuz elkarlanean aritzea, funtsezkoak dira, denok bat eginik, gaur egungo erronkei aurre egin diezaiegun.³⁸ Ordenamendu honek funtsezko eskubide eta askatasunen gauzatzea ahalbideratzen du. Inguruabar hauetan, osasuna zaintzea lehentasunezko helburutzat agertzen da. Horretarako, aldi baterako zenbait eskubide eta askatasun murriztea ekar dezaketen neurriak hartu beharra gerta daiteke. Indarrean dagoen legerian jasotzen diren eta dagokion eskumen-eremuan gauzatzen diren aldi baterako balizko muga horiek, gainerako aukera guztiak aztertu eta alde batera utzi ondoren, proportzionaltasuna kontuan hartuko dute, bere egin behar dituenaren onspena izango dute eta, eduki, prozedura eta iraupenari dagokienez, ahalik eta era murriztailenean gauzatuko dira.

43. Pertsonaren oinarrizko eskubideen artean, *kontzientzia, erlijio eta kultu askatasuna* dago. Ez da erraza guretzat oraintsu arte erabat ezagunak ziren osasun-emergentziari eta alarma-egoerari aurre egitea kultu askatasunerako oinarrizko eskubidea, kutsatzen prebentzioarekin eta osasuna zaintzearekin uztartzea. Geuk ere erabaki mingarriak hartu behar izan ditugu, jokoan dauden ondasun guztiak kontuan hartu ondoren. Beste gotzain batzuei eta elizbarrutietako gobernu-organoei, osasun arloko agintariei eta osasun publikoko adituei kontsultatu eta, batez ere, hausnartu eta behin eta berriz otoitzera eraman ondoren egin dugu. Halaber, *adierazpen askatasuna eta informazio askatasuna* parte hartze demokratikoaren bi euskarri nagusienetakoak dira. Garai zail hauetan, bereziko beharrezkoa da askatasun, egia, objektibotasun eta erantzukizunez gauzatzea, berrien egitasuna arduraz kontrastatuz eta pertsonen duintasun eta eskubideak eta bidezko aniztasuna errespetatuz beti.³⁹ Gure eskerrik beroena, beren zerbitzua funtsezko oinarri hauek gauzatuz eskaini duten profesional eta komunikabideei.

IV 8, "Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege" (Mt 5, 10).

44. Agerikoa da aldi berriaren aurrean gaudena, pertsona askorengan larritasuna eta etsipena eragin dezaketen ziurgabetasunez eta erronkez beteriko aldiaren aurrean. Beldurra benetako etsai bihur dakiguke, baita axolagabekeria pertsonal eta komunitarioa ere. Aldi honetan ere, *ez kutsatzeko neurri arduratsu, pertsonal eta*

erakunde adierazgarrietan, ordena moralaren mugen barruan egingo da, legez ezarrita dagoen edo ezarriko den ordenamendu juridikoaren arabera, guztion ona ahalbideratzeko –ikuspuntu dinamikotik.» (CDSI, 394).

³⁸ "Elkarte politikoak guztion onera jotzen du herritarrei giza eskubideak benetan gauzatzeko eta dagozkigun betebeharrak beren osotasunean betetzeko aukera eskaintzen dien giza giroa sortzearen alde egiten duenean" (DSI, 389).

³⁹ "Informazioa da parte hartze demokratikorako funtsezko tresnetako bat. Ezinezkoa da parte hartzea elkarte politikoaren arazoak, izatezko datuak eta konponbiderako askotariko proposamenak ezagutu gabe. Ezinbestekoa da gizarte bizitzako eremu labain honetan benetako aniztasuna ziurtatzea, informazio eta komunikazioaren arloan berdintasunerako baldintzak ahalbideratuz lege egokien bidez, tresna hauen erabilerarako. Informazioaren objektibotasunerako eskubidearen osoko gauzatzeko oztzopoen artean, editorial eta telebisten kontzentrazioak dira aipagarrienetakoak, eragin arriskutsuak izan ditzakete eta sistema demokratikoan, gertakari honi gobernu-jardueraren, finantza-botereen eta informazioaren arteko lotura gero eta estuagoak dagozkionean" (CDSI, 414).

sozialak hartu behar ditugu, bereziki besteen aldeko maitasunezko zerbitzu bezala. Jaunak itxaropena ereitera bidaltzen gaitu, egokitu zaizkigun erronkei aurre egiteko: “Maitasunean ez dago beldurrarentzat tokirik” (1 Jn 4, 18). Gizadiaren historia horrelakoa dela gogoratu behar dugu, aldaketez eta erronkez beteta dago eta aldiz aldi etengabeko bilakaeran dago. Eta aldi guztietan aurkituko ditugu *konpromiso pertsonal eta sozialaren* lekukotasun ugari eta baliotsuak *zuzentasunaren sustapenean*, ondasun pertsonalak, familia eta elkarte ondasunak, eta baita bizia bera ere, jokoan jarriz. Gaur ere aurkituko ditugu bidean adore ematen diguten eta eusten gaituzten “aldameneko ateko santu” horiek. Garai guztietan, Jainkoak bere errukia erakusten du, hainbesteko maitasunez sortu dituenak eta Artzain On bezala era askotara laguntzen dituenak (ik. Sal 22) inoiz bertan behera utzi gabe.

IV 9. “Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztenean erasoka eta gezurrez gaitz esaka erabiliko zaituztenean. Poz zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten” (Mt 5, 11-12).

45. Askotan *Ebanjelioa ez da ulertzen eta santuek beren bizitzan makina bat jazarpen, irain eta indarkeria jasan dute.* “Zoriontasunen bidea, munduaren arabera bizitzatik Jainkoaren arabera bizitzara, haragiak –hau da, norberekoikeriak- gidatutako bizitzatik Espirituak gidatutako bizitzara garamatzen pazko-bidea da. Munduak, bere sasi-jainko, konpromiso eta lehentasunekin, ezin du honelako bizitzarik onartu. “Bekatzuko egiturek”, sarritan giza pentsaerak eraginda, munduan jaso ezin dezakeen egiaren Espiritutik hain urrun (ik. Jn 14-17), pobretasuna edo otzantasuna edo garbitasuna baztertu baino ezin dezakete egin eta Ebanjelioaren arabera bizitza akats eta arazotzat jo eta, ondorioz, baztertu.⁴⁰ Inoiz ez zaigu ulertezintasun eta zailtasunik faltako. “Bene-benetan diotsuet: Ez da morroia nagusia baino handiago, ez eta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Ulertzen duzue hau, ezta? Bada, zorionekoak izango zarete, betetzen baduzue” (Jn 13, 16-17). Baina San Paulorekin batera, Jainkoaren Herri bezala, beste hau ere esan dezakegu gaur: “Nork aldenduko gaitu Kristok digun maitasunetik? Atsekabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik ezak, arriskuak, ezpatak? Baina guztiotan erraz ateratzen gara garaile, maite izan gaituenari esker.

V. Gantzutu eta mandatari, dolu-jantzia jaietako usain-gozo bihurtzeko

46. Gizon egindako Hitzean itun zaharrean iragarritako eta 22. salmoan bikain deskribatutako Artzain ona aitortzen dugu. *Berak gidatzen gaitu garai zail hauetan egundoko maitasun eta samurtasunez.* Otoitz egiteko erabil dezakegu salmo hau, batez ere gure bidean nekez, iluntasunez edo etsipenez beteriko uneak sortzen direnean. Txatal bakoitza gure konfiantza Jesus Artzain Onarengan jartzeko gonbitea da:

Jauna dut artzain: ez zait ezer falta. Larre guritan etzanarazten nau,
ur baretara eramaten eta indarrak berritzen;
bide egokitik narama, leiala delako.
Ibar beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik,

⁴⁰ Frantzisko Aita Santua, Audientzia orokorra, 2020.eko apirilaren 29a.

zu nirekin baitzaude: zure artzain-makilak lasaitzen nau.
Zuk atontzen didazu mahaia etsaien begi aurrean,
ukenduz gantzuzen didazu burua; gainezka dut kopa.
Bai, zorionak eta leialtasunak inguratuko naute bizitzako egun guztietan;
Jaunaren etxean biziko naiz amaigabeko egunetan.

47. Jainkoak lagun egiten digu maitasunez zainduz, bideko ilunpeetan bere errukiaren argia, bake eta itxaropenez betetzen gaituen argia susmaraziz. Guk geuk egin gura dugun zoriontasunen bidea da. *Zeru berrien eta lur berriaren sorkuntza Pazko aldiko dohain den Espiritu Santuaren gantzuduraz egiten da.* Jesus, Kristo, Gantzutua bezala, geu ere gantzutu eta bidaliak gara gaur, “gatibuei askatasuna eta behartsuei berri ona adieraztera, itsuei ikusmena hots egitera eta zapalduak askatzera, Jaunak onginahia azalduko duen urtea hots egitera” (Lk 4, 18-19). Jesusek Nazaretoko sinagogan irakurtzen duen eta gaur betiereko eta egunerokoak betetzen den idazkiaren egilea den Isaias profetak misio honen beste hiru alderdi ere aipatu zituen: Jauna opari hau egitera bidalia da: “koroa distiratsua emango diet samintasunezko errautsaren ordez, jaietako usain-gozoa dolu-jantziaren ordez, gorespen-kantak etsipenaren ordez” (Is 61, 3). Berriz entzun behar ditugu hitz hauek eta geuri ere errauts-, dolu- eta etsipen-jantziaren ordez jaiko usain-gozoa, gorespina eta itxaropena dei egiten zaigula jakin.⁴¹

48. Amaitzeko, gure begiak Mariarengana zuzendu nahiko genituzke. Berak Jainkoak agindu zion misioa onartu egin zuen. *Bere bizitza zerbitzu bihurtutako maitasun izan zen:* bere lehengusina Isabeli, senar-emaztegaiei Kanako ezteietan; Semeari bere misioan lagun eginez, Gurutzearen oinetan kontsolatuz, Jesusen Gorputz santu gurutziltzatua hartuz eta, apostoluekin batera, Espiritu Santuaren etorrera pozgarria itxaronez Mendekoste egunez. Apostoluek itxaropen benetako eta nagusiaren fisionomia ikasi zuten Berarengandik nekaldiaren ataka gogor eta harrigarrian. Orain ere itxaropen-iturri dugu, erne dagoelako gure beharren aurrean, une zail hauetan bere Semeari aurkezteko. Amaitzeko, bat egingo dugu Eleiza osoarekin otoitz egiteko: “Espirituak eta emazteak diote: «Zatoz!». Entzun duenak ere esan beza «Zatoz!». Egarrri dena betor, eta har beza doan, nahi badu, biziaren ura” (Ap 22, 17). Jaso ezazue gure pazko-agurra Jaunaren izenean: “Jesus Jaunaren grazia guztiokin” (Ap 22, 21).

Bihotzez, hartazue gure bedeinkapena.

2020.eko maiatzaren 17a. Pazko aldiko VI. igandea

Fatimako Amabirjina Zoriontsuaren Memoria

⁴¹ “Deituak gaude pertsona-pegarrak izatera, besteei edaten emateko, agindutako lurra daraman bidea ager dezaten, itxaropena bizirik iraunaraziz” (EG, n. 86).

- + Francisco, Iruña eta Tuterako artzapezpikua
- + Mario, Bilboko gotzaina
- + Jose Ignacio, Donostiako gotzaina
- + Juan Carlos, Gasteizko gotzaina
- + Juan Antonio, Iruña eta Tuterako gotzain laguntzailea
- + Joseba, Bilboko gotzain laguntzailea